

# Liburutegia

PILAR IPARRAGIRRE



## Euskal euskara. Muina eta egitura


**Gonzal Fontaneda**

LULU  
156 orrialde  
20 euro

## Euskara erraz ikasteko metodoa

Euskal gramatika aztertzeke, ikasteko eta irakasteko erabil daitekeen ikuspegi berri bat eskaini du Gonzal Fontanedak *Euskal euskara. Muina eta egitura* liburuan. Ameriketako Estatu Batuetako Lulu argitaletxearen bidez plazaratu du lana. Metodo honen mamia Interneten zintzilikatua du gainera, [www.fontaneda.net](http://www.fontaneda.net) gunean, berau ezagutzeko interesa duten hizkuntzalari zein irakasleei lagungarri izango zaielakoan. Kiritikak, galderak eta iradokizunak, berriz, [euskal@fontaneda.net](mailto:euskal@fontaneda.net) posta elektronikora bidal daitezke. Gonzal Fontanedaren iritziz, euskara oso zaila dela esan ohi da, euskara aztertzeke, orain arte,

erdal gramatiken metodoa erabili delako. Bere metodoarekin, arauak erdaratik ekartzen ez dituen proposamen berri bat jarri nahi du mahai gainean. ■



## Euskaldunen jatorria populazioen genetikaren argitan

**Batzuen artean**

GAIK  
174 orrialde / 18 euro

## Euskaldunen jatorriari buruzko datu esanguratsuak

Joan Ignazio Abrisketak eta Alfontso Mtz. Lizarduikoak maiz entzuten den galdera bati erantzuna aurkitzen ahalegintzeko asmoz osatu dute *Euskaldunen jatorria populazioen genetikaren argitan* liburua. Nondik sortu ziren euskaldunak? Horixe da galdera. Gaur egungo paleoantropologiak, populazioen genetikak, paleohizkuntzalaritzak eta mitologia konparatuak jatorri horren gaineko datu berri eta esanguratsuak eskaini dituzte. Eta horietatik ondorioztatzen da euskal jendea lekuko zuzena eta aktiboa izan dela, duela 40.000 urtetik honantz, jatorrizko Europaren sorreran, eraldaketan eta desagerpenean. Hau da, Afrikatik abiatu eta Europan zehar ibili ziren lehen *sapiens* enbor bereko sustrai sakonak dituen jatorrizko herria dela. ■

## Zortzi urtetik aurrera

Aitor Aranek zortzi urte baino gehiagoko neska-mutikoentzat idatzi du *Printzesa politaren sekretua* kontakizuna. Protagonista ausarta du istorioak: Imanol, gurasoekin batera Bilbon bizi den hamar urteko mutiko beltzarana. Lagun berri bat egin du mutiko horrek Internet bidez. Oso gustukoa du, eta aurrez aurre ezagutu nahi luke. Izan ere, “Printzesa polita” izenarekin sinatzen ditu Imanoli bidaltzen dizkion mezuak. Azkenekoan esan dio benetako printzesa dela, eta berak ere nahiko lukeela mutikoa ezagutu, baina ezin duela bizi den gaztelutik irten. Imanol gaztelura etortzea, berriz, oso arriskutsua izan daitekeela. Haitz Zorrotz mendi zorrotzaren puntaren puntan dago gaztelua, haraino autobusik ez da iristen, baina Imanolek hala nahi badu, bidaliko dio zaldi-gurdi bat bila esaten dion lekura. Mutikoaren poza! ■



## Printzesa politaren sekretua

**Aitor Arana**

IBAIZABAL  
86 orrialde  
8,90 euro


## Euskararen aztarnak Aragoi

Euskeraren Erri Akademiak plazaratzen duen *Euskerazaintza* aldizkariaren azken zenbakian, besteak beste, Jose Maria San Sebastian *Latxaga*-k euskarak Aragoi oraindik duen presentziak idatzi dituen lanak agertzen dira. 1989. urtean Bixente Latiegi eta Lorentxo Peñarekin batera Oskara egindako bidaia-aren emaitzetatik hasiz –*Euskal txirularia Aragoi* du izenburu lan horrek–, eta 1999. urtean Bixente Latiegi eta Paulo Atutxa lagun zituela berriro Aragoira egindako bisitak eman zituenak eskaintzen ditu. Hari berari jarraituz, euskarak lurralde aragoitarrean izan duen biziraupenaz Bixente Latiegik idatzitako *El euskera en la Huesca de los siglos XIV al XVII* izeneko lana azaltzen da. Bertan aurkitutako euskal toponimiaren aztarnen ugaritasunaz harrিতuta ageri da egilea. ■



## Euskerazaintza Batzuen artean

EUSKERAREN ERRI  
AKADEMIA  
62 orrialde



## Krokodiloa ohe azpian

Mariasun Landa

ALBERDANIA

72 orrialde

8 euro

## Landaren Krokodiloa ohe azpian berriz argitaraturik

Sari garrantzitsuak eskuratu ditu Mariasun Landak *Krokodiloa ohe azpian* izenburuko kontakizunari esker. 2002. urtean Tolosako Udalak antolatutako Antonio Maria Labaien lehiaketa irabazi zuen, eta 2003. urtean Espainiako Haur eta Gazte Literaturako Sari Nazionala. Alberdania argitaletxearen eskutik berriro argitaratu den lan honen oinarrian bakardadeak, antsietateak eta mendekotasun sentimentuak daude. Gizon arrunta da protagonista. Arruntak dira egunero egiten dituen gauzak ere: ohetik altxa, garbitu, jantzi, gosaldia, lanera joan... Zapatak beti garbi eramaten ahalegintzen da,

gainera. Baina goiz batean zapaten bila hasi, eta krokodilo bat ikusiko du ohe azpian. ■

## Mutiko elbarri batek kontatutako gorabeherak

Xabier Mendiguren Elizegik idatzi du Giltza-Edebe argitaletxeak irakurle gaztetxoenei begira argitaratu duen *Gurpil gainean nabil*. Gurpil-aulki batean ibili behar duen mutikoaren gaineko istorioa da orriotakoa. Liburuan agertzen diren marrazkiak berriz, Patxi Gallego komikilari errenteriarri zor zaizkio. Mikel protagonistak bere ametsak eta amorrak kontatuko dizkigu. Mutikoarentzat gurpil-aulkia Formula 1eko bolidoa da, eta berak Schumacher izan nahi luke, kosta ahala kosta. ■

## Gurpil gainean nabil

X. Mendiguren Elizegi

GILTZA

64 orrialde



JOSETXO ORUETA

## «Ez dut sinesten aurreikusitako etorkizunean»

Nola definitu daiteke zure hirugarren lan hau?

*Los planes de Lidia*-k baditu intriga elementuak eta baita ezusteko batzuk ere. Bestalde, komediatik ere badu dezente. Inaki Aldekoarentzat parodia komiko-galaktikoa da. Nik ez dakit hala den. Nire ustez, ziurtzat eman daitekeen gauza bakarra da nobela hau ez dela gauza serioa.

Zuk nola aurreikusten duzu etorkizuna?

Garbi utzi nahi dut nik ez dudala patuan, edota aurreikusitako eta nahitaezko etorkizunean sinesten. Uste dut ezin konta ahala balizko etorkizun izan ditzakegula aurrean, eta egun bizirik gaudenok oraindik ere badugula amesten dugun geroaren alde zer edo zer egiteko aukera.

Nobelan agertzen duzunagatik ordea, ez dirudi hain baikorra zarenik...

Ez. *Los planes de Lidia*n azaltzen dudana etorkizuna, nire gusturako behintzat, izan daitezkeen etorkizunetatik ezkorrenetakoa da: gizon-emakume guztiak aginte bakar baten menpean bizi dira, eta menpean diote legedi bakar bati, Jainko berbera gurtu behar dute eta hizkuntza bakarraz hitz egin. Egoera horretara ongia eta gaizkiaren artean XXI. mendean hasi zen gerra luze baten ondoren iritsi dira. Ongiak irabazi zuen, judaismoak, kristautasunak eta Islamak bat egin ondoren, eta indarrean dagoen Gobernu Ekumenikoa osatu zuten denen artean. Gobernu horri eusten dioten oinarriak hiru dira: erlijioa, eraikuntza eta telebista.

Nolakoa da *Los planes de Lidia*ko protagonista?

Gizajo bat, egoera horretan lasai bizi dena, biziki maite duen emakumea kentzen dioten arte.



egileari galdezka

## Etorkizun urrunari buruzko distopia

Pamiela argitaletxearen bidez kale-ratu zuen *Ortziren hortza* nobela historikoarekin eman

zen ezagutzera idazle gisa Josetxo Orueta. Nobela horrek gaztelaniazko bertsioa izan zuen gero, *El cantar de Orreaga* izenburuarekin. Aurten, *Pol eta Val* gazteentzako komedia argitaratu zuen Oruetak Pamielan bertan, eta geroxeago *Los planes de Lidia* nobela, Erein argitaletxearen eskutik. Azken honetan etorkizun urrunera garamatza egileak, zenbaitzuek jadanik indarrean ikustea irrikatzen duten globalizazio erabatekoa jaun eta jabe den garai batera: hor, Gobernu Ekumenikoaren zaintzapean bizi dira gizon-emakumeak, polizia mota ugari bermaturiko baken. Sexu-harremanak zikintzat jotzen dira, ugalketa klonazio bidez egin ohi da; baina bizimodua irabazteko arazo larriak ez dagoenez, eta besterik



## Los planes de Lidia

Josetxo Orueta

EREIN

172 orrialde

13,50 euro

ez dagoela sinetsirik, zoriontsu ez bada konforme samar bizi da jendea, telebistatik eskaintzen zaizkion futbol partidu eta lehiaketen artean arreta jarri. Etsai bi ditu Gobernu horrek, halere: espaziotik mehatxatzen duten alien-ak; eta gutxi izan arren oraindik zutik dirauten talde iraultzaileak. Eta gogor borrokatzen ditu Gobernuak, "perfekziozko" egoera iraul ez dezaten. ■